

# Bero-beroan

## Kuna haurrak eta irakasle gaztelaniadunak

**KUNA YALA**, kuna herriaren lurraldea, Panama ipar-ekialdean dago eta Kolonbiako mugaraino iristen da, Karibeko itsasertzean zehar. Kultura arteko Hezkuntza Elebidunaren erreforma gauzatzen ari dira, zer konpondua bai baitaukat.



Kuna Yala herria horiz markatua ageri da Panamako mapan.

Robert Scarcia kazetariak idatzi du Panamako kuna herriari buruz

www.gipuzkoaeuskara.net webgunean. Hezkuntzan kuna herriak eta, batez ere, kuna hizkuntzak duen egoeraren isla da Scarcia kontakutakoa: “2002an, 2003an, 2004an eta 2005ean, hurrek gaztelaniadun irakasleak izan zituzten haur eskoletan, eta kuna hizkuntza baino ez dakite, ordea, eta ezin dute ikasketa prozesu normala osatu, halakoetan ama hizkuntza erabiltzen baita komunikazio tresna nagusitzat. Horregatik dira kuna haurrak hain lotsatiak, itxura batean”.

## Elhuyarren hizkuntza zerbitzuak on-line

**ELHUYAR FUNDAZIOAK** www.elhuyar.org/hizkuntza-zerbitzuak webgunea jarri du martxan. 1972az geroz-

tik sortu dituen tresna eta baliabideak bildu dituzte bertan, hizkuntzaren arloan lan egiten duten profesionalak zein gainerako herritarrek erabil ditzaten. Hiztegiak lan guztia kontsultatu, hiztegien plugin-ak deskargatu eta telefono mugikorretarako euskara-gaztelaniazko hiztegi murriztua eskuratu ahal dira webgune horretan, besteak beste. Zientzia eta Teknologiaren Corpora, CorpEus, OpenTrad eta Elebila bezalako baliabideak bildu ditu Elhuyarrek.

## BAHEA

Joxan Rodriguez HPSko Euskara Sustatzeko zuzendariak Joanmari Larrarte, EKTko kontseilari ordezkariari erantzundakoa Berrian:

“Euskaraz bizi eta irakurtzeko aukerak sortzen laguntzea bada herriaginteen egitekoa, baina irakurleak galdu gabe eustea eta berriak irabaztea hedabideen egitekoa ere bada. Kritika ez ezik, autokritika ere ez ote dugu denok beharrezko?”.

HPSk egin duen oinarritzko txostenari buruz Mikel Zalbidetik idatzitako artikularen pasartea atera du Txerra Rodriguezek

www.blogak.com/garaigoikoa-n: “Belaunehi belauneko hizkuntza-transmisio arrunta, menderik mendehan-hemen ezagutu izan dena, osabetezkoa da: transmisio betea, etxeko eta kaleko, lagunarteko eta lanmunduko mintzajardun bizi arruntaren beharrak asetzeko balio duena; beste hizkuntza baten makulurik gabe jarduteko behar adina soportekontzeptual, emotibo eta operatiboeskaintzen duena; haserretzeko eta txistekontatzeko, (...). Frenatu al da, benetan, belaunehi belauneko familia-transmisioan gertatzen ari zen mintzagaitasun betearen eten hori? Transmisio betea eskaintzen al dute egungo familia euskaldunek, guztiak edo gehienek? Erantzuna begien bistan dugu: ez”.

## TALAIAN

### Enpresen eta bankuen irabaziak

2008ko lehen seihilekoa amaitu da eta dagoeneko badauzkagu krisi ekonomikoaren inguruko hainbat datu. Horien arabera, krisiak klase apalei eragin die gehien. Urte erdi honetan banku eta aurrezki kutxek irabazi handiak lortu dituzte eta beste behin ere euren markak hobetu. Batez beste %20 gehiago irabazi dute iazko epe bereko datuekin alderatuz gero. Espainiako Bankuaren datuen arabera, enpresa ez finantzarioen irabaziak lehen sei hilabeteetan %32 igo dira; iaz berriz, %29,2. Burtsan kotizatzen duten 35 espainiar enpresek irabaziak %14 igo dituzte, 49.246 milioi eurora arte, baina langileentzako gastuak jaitsi egin dira. Langileei epe horretan ordaindu beharrezkoa %4,1 igo da batez beste, hau da, enpresa ez finantzarioen irabaziekin alderatuta, zortzi aldiz gutxiago.

Aurrezki kutxentzako eta bankuentzako testuinguru onuragarri horretan, azpimarratu eta salatu behar da erakunde finantzario horietako askok enpresa txiki eta ertainei kredituak emateari utzi diela Euskal Herrian; eta batez ere likidezia arazoak dauzkaten enpresa txikiei.

Horrek guztiak likidezia behar duten enpresa txiki eta ertain batzuen kolapsoa eragin dezake, kontuan hartuz gero egungo kontsumo geldialdiak eta energia prezioen igoerak ekarri digun egoera. Gobernuak erakunde finantzario horiek presionatu beharko lituzkete, garai zail horietan enpresa txiki eta ertainak alde batera utz ez ditzaitez. Izan ere, euren irabazien zati bat enpresa horiengandik eta euren langileengandik datoz.

Juan Mari Arregi